

TOPAKETAREN MEMORIAK

LURRALDEAK EHUNTZEN 2022

**Han eta hemen duintasunaren alde
diharduten aktibista migratzaileen
eta defendatzaileen topaketa.**



Calala Fondo de Mujeres fundazioak emakumeen mugimenduak indartzen laguntzen du 2010etik, eta horretarako dohaintzak egiten dizkie Erdialdeko Amerikako eta Espainiako Estatuko emakumeen taldeei eta sareei. Boterea ematen die mundua aldatzen ari diren emakumeei.

Egin bat Calalarekin – Eman boterea

Sartu www.calala.org webgunean

IZENBURUA: TOPAKETAREN MEMORIAK «Lurraldeak ehuntzen 2022, han eta hemen duintasunaren alde diharduten aktibista migratzaileen eta defendatzaileen topaketa»

ARGITALPEN-DATA: 2023

KOORDINAZIOA: Calala Fondo de Mujeres

ESKER ONAK: Topaketa honetan parte hartu zuten aktibistei, giza eskubideen defendatzaileei eta aholkulariei. Eskerrik asko denei, topaketa honi zentzua emateagatik eta eskubideak defendatzen jarraitzeko euren jakituria, errealitateak eta indarra gurekin partekatzeagatik.

FUNDACIÓN CALALA FONDO DE MUJERES

Aragón kalea, 424, ezkerreko eskailera, 3. solairuartea

08013 Bartzelona

Tel. +34 931 39 74 20

Helbide elektronikoa: calala@calala.org

www.calala.org



Babesleak



TOPAKETAREN MEMORIAK

**LURRALDEAK
EHUNTZEN
2022**

**Han eta hemen duintasunaren alde
diharduten aktibista migratzaileen
eta defendatzaileen topaketa.**

TOPAKETAREN MEMORIAK:

“Lurraldeak ehuntzen 2022, han eta hemen duintasunaren alde diharduten aktibista migratzaileen eta defendatzaileen topaketa”

BILBO, 2022KO URRIAREN 29TIK AZAROAREN 2RA

Urriaren 29tik azaroaren 2ra, «Lurraldeak ehuntzen 2022, han eta hemen duintasunaren alde diharduten aktibista migratzaileen eta defendatzaileen topaketa» egin zen Euskadin, giza eskubiak defendatzen dituzten Erdialdeko Amerikako aktibista migratzaileak protagonista izan zituen jardunaldia. Bertan, aktibismo feminista migratzaileak zer norabide hartu duen hausnartu zuten elkarrekin, tokian tokiko nahiz mundu osoko erronkak, sinergiak, gaitasunak eta ezaguerak identifikatu nahian. 60 pertsona baino gehiago bildu ziren Bizkaian, aktibismo feministari, antirrazistari eta deskolonialari buruzko esperientziak ikusgai egiteko eta esperientzia horiek elkarrekin trukatzeko.

Oso jardunaldi bizia izan zen, ikaskuntzaz betea; parte-hartzaileek aukera izan zuten elkarrekin hitz egiteko eta esperientziak partekatzeko, gogoeta-uneak eta sendatze espiritualerako uneak izan zituzten, eta, zergatik ez, baita adierazpenerako eta dantza egiteko momentuak ere, nork bere burua zaintzea eta gozatzea ere aktibismoaren parte delako. Jardunaldiaren aurretik, eskualdeko topaketak egin ziren Andaluzian, Katalunian, Euskadin, Madrilen eta Valentzian. Horietan, tokiko emakume migratuen taldeetako ordezkariak gaia jorratu zuten, bakoitzari zegokion lurralde-esparruan.

Urriaren 29an hasi zen prozesua, defendatzaile bakoitzaren eta kolektibo osoaren ezinegonaren konplexutasuna aitortuz, mundu moderno kolonialaren sistemak inposatzen dituen arrazalizazio-geopolitiken ondorioz. Horrez gain, geopolitika horiek hango eta hemengo memoria nola zeharkatzen duten aztertu zuten. Horrela, aktibistek jasaten duten minaren edo sufrimenduaren hainbat dimentsio adierazi ziren: zauri koloniala, migratzaileen dolua eta arrazagatiko trauma, guztiak ere erbesteratzearen, jazarpenaren eta desplazamenduarekin esperientziekin lotuta.

“Gure gorputzak desjabetzen dizkigute. Maien kosmogonian, zoriontsu izateko egiten ziren gorputzak. Gorputzen gaineko legekontrakotasuna da lurralde-indarkeriaren moduetako bat: gorputza lurraldearen aurkakoa, hain zuzen”.

LORENA CABNAL

Era berean, babesteko eta elkarri laguntzeko moduez hitz egin zuten; izan ere, *erexistentziako* antolamendu komunalak sortzen dira pixkanaka, arrazismo estruktural-instituzionalaren politikei aurre egin ahal izateko. Jardun horiek hertsiki lotuta daude sendatze kolektiboarekin, prestakuntza-guneekin, ordezko ekonomien sorrerarekin, komunikazioarekin eta eragin politiko eta sozialarekin.

Horrez gain, aktibismo horretarako testuinguruaren ezaugarriez hitz egin zen, baita Espainiako lurraldean bizi diren parte-hartzaile migratzaileez eta «Abya Yalaren Bihotzetik» (kolonialismoan Erdialdeko Amerika deritzonetik) etorritako parte-hartzaileez.

● **ESPAINIAKO LURRALDEKO ERRONKAK EDO BEHARRAK**


Migrazioaren testuinguruan lehen pertsonak identifikatu ziren kolektibo parte-hartzaileen dinamikak biltzen dituzten egiturazko baldintzatzaileak, honako alderdi hauekin lotuta:

- Atzeritartasun-legea.
- Etxean eta zaintzen esparruan egiten duten lana.
- Beren aktibismoaren gaiekiko desafekzio soziala eta horrek eragiten duen eskubideen bermerik eza.
- Faxismoaren, kolonialismoaren eta arrazismoaren etengabeko berrikuntza.
- Gizarte-arretako eta hezkuntzako sistema publikoekin duten harremana.
- Askotariko errealitateak kontuan hartzen ez dituzten feminismo zuri heteroarautzaileekin duten harremana.
- Aktibismoaren beste eremu batzuekin duten lotura, agenda anitzen topaketa eta elkarrekin laguntza.
- Autokudeaketa ez oso jasangarria eta borondatezko aktibismoaren prekarizazioa.
- Lidergoa gauzatzeko moduak.
- Neke mentala eta fisikoa.
- Eta migratzaileak euren artean gehiago antolatzeko beharra.

● **ERDIALDEKO AMERIKAKO ERRONKAK EDO BEHARRAK**

Erdialdeko Amerikako testuinguruan, aktibista bakoitzaren eta kolektibo osoaren behar nagusiak identifikatu ziren, baita honako errealitate hauek ere:

- Indarkeria sistemikoa.
- Pobretzea.
- Militarizazioa.
- Krimen antolatua.
- Kanporatzea.
- Jazarpena
- Ustelkeria.
- Lurralde-gatazkak.
- Estraktibismoa eta jabetza kentzea.



krimen antolatua



indarkeria sistemikoa

militarizazioa

ustelkeria



jazarpena

ERDIALDEKO AMERIKAKO TESTUINGURUA

lurralde-gatazka



pobretzea

kanporatzea



estraktibismoa eta jabetza kentzea



ERRONKAK E

Etxeko lana eta zaintza



Neke mental eta fisikoa

Hezkuntzako eta gizarte-laguntzako sistema publikoak



Eskubideen bermerik eza

Atzeritartasun-legea



ESPAINIAKO LURRALDEA

Faxismoa, kolonialismoa eta arrazismoa etengabe azaltzea



Feminismo zuri heteronormatiboak



Aktibismoaren beste eremu batzuekiko lotura, askotariko agendak eta elkarrekiko laguntza

Migratzaileen antolamendu-premia handiagokoak



Jasangarritasun txikiko autogestioa

Boluntarioen aktibismoaren prekarizazioa

Lidergoa gauzatzeko moduak

DO PREMIAK



● DENON EHUNA

Topaketan, hari batzuk identifikatu ahal izan ziren Abya Yala eta migratutako komunitateak lotzen dituen trentza kolektibo horretarako. Era berean, hari horiek lotzeko aukera ematen duten jarduteko modu batzuk antzeman ziren.

Lurraldeak han eta hemen ehuntzen jarraitzeko premisarekin jarraituz, sortu edo indartu beharreko hiru eremu identifikatu ziren: sendatzea, mobilizazio soziala eta intzidentzia politikoa, eta artibismoa.

Lurraldeak ehuntzen topaketako dinamizatzaile Jeannette Tineoren hitzetan: «Taldearen aniztasuna ederra da. Hori oso aberasgarria da, baina erronka handiak planteatzen ditu; izan ere, aliantza batzuk ezinezkoak direla aitortu behar da, erakundeen izaera politikoa dela eta. Ezin da planteatu aliantza bakarraren zentzua, prozesuan zehar landu daitezkeen kidesunak eta konplizitateak jomuga dituzten politika etikoak edo poetikoak baizik».

Aliantzei buruz hitz egiten jarraitzeko, taldeek eta erakundeek mapa zehatzagoa egin behar dute lehen topaketa honetan identifikatutako interesei eta balizko lankidetzari dagokienez.

Migratutako emakumei laguntzeko prozesuetan badira erronka handia izaten jarraitzen duten zenbait gai, hala nola trans gaiak, ez-binarioak eta sexu-disidentziak, generoa eta lan sexuala, besteak beste. Horrek arreta partikularra behar du, eta baliabideak areagotu egin behar dira arrazalizatuta dauden migratutako trans komunitate feministen kasuan.

Garrantzitsua da lankidetzarekiko harreman-mota zehazten jarraitzea eta emakumeen funtsei eta fundazioei laguntzen jarraitzea.

Nazioarteko lankidetzarekiko eta iparraldeko emakumeen funtsekiko harremanak ere hainbat hausnarketa piztu zituen; lankidetzarekiko harremana eraldatzearen eta deskolonizatzearen beharra eta egokitasuna nabarmendu ziren, duintasun politikoko harremana lortze aldera.

“Ahizpa migratzaileak elkartzeko ari dira elkarri laguntzeko eta mendebaldeko gizarteak eskaintzen ez dien komunalitatea sortzeko”.

LURRALDEAK EHUNTZEN 2022 TOPAKETAKO PARTE-HARTZAILEA, #LADIGNIDADAQUIYALLA

[HTTPS://TWITTER.COM/CALALAFONDO/STATUS/1587874298554900482](https://twitter.com/CALALAFONDO/STATUS/1587874298554900482)



● ERDIALDEKO AMERIKAKO AKTIBISTA MIGRATZAILEEN ETA DEFENDATZAILEEN MUGAZ GAINDIKO ELKARRIZKETAK

«Hango» eta «hemengo» ikuspuntuak identifikatzeko lanaren ondoren, urriaren 30ean eremu honetan topo egin zuten lehenengoz Abya Yalako emakume aktibistek eta Espainiako migratzaileek. Bertan, ezagutzak eta esperientziak partekatu zituzten, «Mugaz gaindiko elkarrizketak» izeneko mahai-inguru batean.

Zentzu horretan, oso hausnarketa garrantzitsua egin zen orain bi lurraldeetan bizi diren pertsonen arteko loturari buruz, mugikortasun horiek gainditzen eta lotzen dituen aktibismo beraren parte gisa identifikatzen baita. Bestek beste, honako gai hauek jorratu ziren:

- Espainian etxearen eta zaintzen sektorean lan egiten duten emakumeen baldintza prekarioak.
- Atzerritartasun-legeak bizimodu duina izateko eragiten dituen zailtasunak.
- Espainian migratzaile izateak bizitza etengabe berrasmatu behar izatea esan nahi du.
- Migrazioaren dolua, dolu kolonialtzat hartuta.
- Batzuek migratzeko sentitu dituzten arrazoiak, hala nola euren jatorrizko herrialdeetan bizi diren jazarpenak.
- Abya Yalan egiten duten lanari dagokionez defendatzaileek aurrez aurre dituzten erronkak.
- Taldeetan elkartuta zenbait tresna eskuratu ahal izan dituzte, baita eskubideei buruzko prestakuntza, laguntza psikologikoa eta atzerritartasun-izapideetarako aholkularitza ere.



Halaber, garrantzitsua da
arrazalizatutako
trans feminista migratuei
baliabideak bideratzea.

Topaketan, sendotu edo
sortu beharreko
hiru eremu identifikatu
genituen

SENDAKETA

ARTIBISMOA

MOBILIZAZIO SOZIALA
ETA ERAGIN
POLITIKOA

Espainian
zaintze
lan eg
emakum
pre



Migrazioa
dolu kol
har



«Han eta hemen» identifikazio-lanaren ondoren, **MUGAZ GAINDIKO ELKARRIZKETAK** egin genituen, jakintzak partekatzeko. Gai hauek izan genituen hizpide:

etxearen eta
n sektorean
ituen duten
een baldintza
karioak



Atzerriartasun-legeak
bizimodu duina
izateko eragiten dituen
zailtasunak



Espanian migratzaile
izateak bizitza
etengabe **BERRASMATU**
behar izatea esan



aren dolua,
onialtzat
tuta



Batzuek migratzeko
sentitu dituzten
arrazoiak, hala nola
euren jatorrizko
herrialdeetako
jazarpenak



Abya Yalako
defendatzaileek
aurrez aurre
dituzten
erronkak



Taldeetan elkartuta
zenbait tresna
eskuratu
ahal izan dituzte,
baita prestakuntza eta
laguntza psikologikoa
ere



● ELKARREKIN ETA ZORIONTSU GAUDELA AITORTZEA

Azaroaren 2an Bilboko Hika Ateneo aretoan egin zen bilera, aurreko egunetan eztabaidatutako gaiak ikusgai egiteko eta euskal herritarrekin batera gai horiei buruzko hausnarketa egiteko. Parte-hartzaileek honako gai hauek partekatzea erabaki zuten:

- Nolakoa den bizimodua desberdinkeria errepikatzen duen sistema batean; izan ere, sistema horretan mendekotasun zuriaren preso bihurtzen dira emakume migratzaileak.
- Nola bizi diren migrazio politikoak.
- Arrazalizatutako gorputz migratzaileek ez dute sentitzen beren beharrak irudikatuta daudetik Espainiako Parlamentuan eztabaidatu den trans legean.
- Hemen feminista zuri askori eusteko lan egiten duten emakume migratzaileen ikusgaitasunik eza.
- Emakume migratzaileek Espainian dituzten ahots indartsuak ezagutzeko beharra.
- Emakume migratzaileen komunalitate-zentzua; izan ere, elkartzen ari dira elkar babesteko eta mendebaldeko gizarteak eskaintzen ez dien komunitatea sortzeko.
- Aktibisten aniztasuna eta desberdinak izateko moduak aitortzea.

Elkarrekin egoteko, partekatzeko, zaintzeko, elkarri laguntzeko eta sortzeko aukera ospatzeko gunea ere izan zen topaketa.

● PARTE-HARTZAILEEN HAUSNARKETAK:

Hona hemen topaketan zehar egin ziren hausnarketako batzuk:

“Erregularizazio-prozesua oso zaila da; ez dago informaziorik, beldurra dago, eta esplotazioa. Gaur egun dagoen emakumeentzako laguntza-sarerik gabe ezinezkoa izango litzateke gaur gauden lekura iristea. Emakumeen sareak lagundu eta babestu egiten gaitu. Guk prozesu asko igaro ditugu. Emakume desberdinak gara, herrialde desberdinetakoak, eta prozesu desberdinak bizitu ditugu; elkarrengandik ikasten ari gara eta etorkizunean beste emakume batzuei laguntzeko prestatzen ari gara. Eta hau ezinezkoa izango litzateke Calala gabe, Mujeres con Voz elkarte gabe, horrelako mugimendurik gabe eta hemen dauden emakumeak gabe.”

MARIA LIZ CONSTANTINE, WARMIPURA, GETXO

“Aktibista migratzaile gisa lan egiten ari naiz hemen, Bilbon. Ahotsa altxatuz, orain askatasun gehiagorekin, Warmipura migrazio-doluaeren prozesua igaro ondoren, Fondo de Mujeres elkartearen babespean (.). Orain ezin naiz nire herrialdera itzuli, baina sareak eta aliantza estrategikoak ehuntzen ari gara hemen, eta iraunkorrak izatea espero dugu, eusten eta ekintza politikoa egiten jarraitzeko; baita salatzen jarraitzeko —kontua ez da ez dugula herrialde honetara sufritzera etorri nahi, sufritzera baika-toz— eta elkarrekin bat egiteko ere, gure herrialdeetara demokraziara itzul dadin. Eta herrialde zuri hau sentsibilizatzeko, eskulana garela ohartarazteko, lanik txarrenak eskaintzen baitizkigute, zaintzak, eta horietan urratu egiten dira gure eskubideak.”

MARLENE DEL SOCORRO PONCE ESPINO, WARMIPURA, GETXO



“Topaketa honetatik hainbat hazi aterako dira, eta horiek eztabaida batzuekin eta zeharka ditugun gai batzuekin jarraitzera motibatuko gaituzte.”

ISABEL HERNÁNDEZ, MUJERES TEJIENDO RED, GETXO

“Orain asko hunkitzen naiz, elkartzeko aukera izatea sekulako erronka baita. Eta topaketa hau ez da bi egunetan jaio. Topaketa hau duela denbora asko ehuntzen hasi zen lurraldeetan. Iriste-puntu bat da, baina abiapuntu gisa ere sentitzen dugu, esperientzia, zalantza, ideia eta amets horiek guztiak ekarri ahal izan baititut ni natorren lekutik eta beste erakunde batzuetatik.”

CAROLINA ESCOBAR, COLECTIVO SIRIRÍ, GRANADA

“Politikoki guretzat nahiko konplexua da hitz egitea eta, modu kontzientean, lurralde historiko kolonizatzaile batetik, lankidetzaren deskolonizazioaz hitz egiten ari garela helaraztea. Oso asmo politikak daudela sentitzen dut; bide asko daude eta sekulako erronkak daudela sentitzen dut. Oso erronka konplexuak daude, baina erritmo berezietan sinesten dut jazarpenak eraldatzeko kontzientziaren asmoa jartzen dugunean.”

LORENA CABNAL, RED TZK'AT, IXIMULEW, GUATEMALA

“Testuinguruetan, banakako borroketan, isolatuta bizitzea oso gogorra da, oso bortitza da. Horregatik, beste batzuekin elkartzen garenean, elkar babesteaz gain, besteek aurrera jarraitzeko dituzten estrategiak ezagutzen ditugu; esperientzia hori helarazten digute, eta guk ere gauza bera egiten dugu gure esperientziak partekatzean. Niri oso garrantzitsua iruditzen zait.”

CECILIA RODRÍGUEZ, LAS HIJAS DE SAFO, EL SALVADOR

“Topaketa honetara etorri eta borroka guztiz desberdinak dituzten horrenbeste adiskiderekin konektatu ahal izatea. Eta oraindik ere Abya Yala kolonizatzen, arpilatzen eta jipoitzen ari direla konturaztea. Calalak oso eginkizun garrantzitsua betetzen du gu elkartzeko asmo horretan, borroka banakakoa izan ez dadin.”

CARMEN VILLATORO, COLECTIVA MATRIA, HONDURAS

“Garrantzitsua da egiten ari garen borroka aitortzea. Taldean egiten ari garen lanak indartu egiten du aurrera jarraitzeko eta borrokarako gure asmoa, emakume izate hutsagatik bizitza bidezkoago baten eta duintasunaren alde borroka egin behar baitugu. Era berean, bizitzari balioa ematearen eta elkarrekin errespetuaren garrantzia aitortu behar dugu. Hemen bizi ahal izateko sortu ditugun erresistentzia guztiek aldaketaren eragile egiten gaituzte, gure prozesuen buru, eta sostengatzen ari garen eta lurralde honi egiten ari garen ekarpenaren subjektu politiko bihurtu gara. Erakusketan parte hartu zuten adiskideek partekatutako horrekin geratzen naiz. Eskerrik asko.”

PARTE-HARTZAILE ANONIMOA



“Ekiteko erronka asko daude: ezarritako muga kolonialak apurtzea; emakume migratu gisa ditugun sufrimenduak politizatzen jarraitzea; feminismoen aniztasuna onartzea —jakintza eta pentsamendu asko baitaude—; hor lapurtutako aspaldiko memoriak berreskuratzea; baliabide ekonomikoak benetan emakumeen bizitzetara bideratzea; emakume migratuak tresna gisa gehiago ez erabiltzea; zuri izatearen pribilegioak zalantzan jartzea eta horiek interpelatzen jarraitzea”

PARTE-HARTZAILE ANONIMOA

Calalaren YouTubeko kanalean:

«Lurraldeak ehuntzen 2022, han eta hemen duintasunaren alde diharduten aktibista migratzaileen eta defendatzaileen topaketaren» **laburpena**.

[HTTPS://WWW.YOUTUBE.COM/WATCH?V=35S-CB-RGVU](https://www.youtube.com/watch?v=35S-CB-RGVU)

Mugaz gaindiko **elkarrizketak**, «Lurraldeak ehuntzen 2022, han eta hemen duintasunaren alde diharduten aktibista migratzaileen eta defendatzaileen topaketaren» esparruan.

[HTTPS://YOUTU.BE/I8EEWVAT2KC](https://youtu.be/i8EEWVAT2KC)

«Espainiako Parlamentuan eztabaidatzen ari den trans legeak ez die erantzuten arrazalizatutako gorputz migratzaileen beharrei. Ez gaude hor».

**KIMI, MIGRANTES TRANSGRESORXS
KOLEKTIBOA**

[HTTPS://TWITTER.COM/CALALAFONDO/
STATUS/1587873132936822786](https://twitter.com/calalafondo/status/1587873132936822786)





“Emakume migratzaileak mendekotasun zuriaren preso bihurtu gara desberdintasuna errepikatzen duen sistema honetan”.

**ANTONIA ÁVALOS,
MUJERES SUPERVIVIENTES KOLEKTIBOA**

[HTTPS://TWITTER.COM/CALALAFONDO/
STATUS/1587871317549776898](https://twitter.com/CALALAFONDO/STATUS/1587871317549776898)

HAN ETA HEMEN DUINTASUNAREN ALDE DIHARDUTEN AKTIBISTA MIGRATZAILEEN ETA DEFENDATZAILEEN TOPAKETA

[HTTPS://TWITTER.COM/CALALAFONDO/STATUS/1587868800594092033](https://twitter.com/CALALAFONDO/STATUS/1587868800594092033)



Azaroaren 2an, bileraren xedea **LEHENAGO EZTABAIDATUTAKO GAIAK IKUSGAI EGITEA ETA EUSKAL HERRITARREKIN BATERA HAI EI BURUZKO HAUSNARKETA EGITEA** izan zen. Gai hauek jorratu ziren:

Nolakoa den bizimodua desberdinkeria errepikatzen duen sistema batean; izan ere, sistema horretan mendekotasun zuriaren preso bihurtzen dira emakume migratzaileak.



Nola bizi diren migrazio politikoak.



Aktibisten aniztasuna eta desberdinak izateko moduak aitortzea.



Emakume migratzaileen komunitate-zentzua; izan ere, elkartzen ari dira elkar babesteko eta mendebaldeko gizarteak eskaintzen ez dien komunitatea sortzeko.



Emakume migratzaileek Espainian dituzten ahots indartsuak ezagutzeko beharra.



Elkarrekin egoteko, partekatzeko, elkar zaintzeko, elkarri laguntzeko eta sortzeko aukera ospatzea.



Arraz



Hemen femi
eust
egiten du
migr
ikusgai



Hauek dira parte-hartzaileen gogoetetako batzuk.

ESPAINIAKO PARLAMENTUAN EZTABAIDATZEN ARI DEN TRANS LEGEAK EZ DIE ERANTZUTEN ARRAZAIZATUTAKO GORPUTZ MIGRATZAILEEN BEHARREI. EZ GAUDE HOR.
Kimi, Migrantes transgresorxs Kolektiboa.



eztabaidatutako gorputz migratzaileek ez dute sentitzen beren beharrak irudikatuta daudenik Espainiako Parlamentuan eztabaidatu den trans legean.

nista zuri askori teko lan ten emakume atzaileen gasunik eza.



TOPAKETA HONETARA ETORRI ETA BORROKA GUZTIZ DESBERDINAK DITUZTEN HORRENBESTE ADISKIDEREKIN KONEKTATU AHAL IZATEA. ETA ORAINDIK ERE ABYA YALA KOLONIZATZEN, ARPILATZEN ETA JIPOITZEN ARI DIRELA KONTURATZEA. CALALAK OSO EGINKIZUN GARRANTZITSUA BETETZEN DU GU ELKARTZEKO ASMO HORRETAN, BORROKA BANAKAKOA IZAN EZ DADIN.

Carmen Villatoro, Colectiva Matria, Honduras



EMAKUME MIGRATZAILEAK MENDEKOTASUN ZURIAREN PRESO BIHURTU GARA DESBERDINTASUNA ERREPIKATZEN DUEN SISTEMA HONETAN.

Antonia Ávalos, Mujeres Supervivientes Kolektiboa



POLITIKOKI GURETZAT NAHIKO KONPLEXUA DA HITZ EGITEA ETA, MODU KONTZIENTEAN, LURRALDE HISTORIKO KOLONIZATZAILE BATETIK, LANKIDETZAREN DESKOLONIZAZIOAZ HITZ EGITEN ARI GARELA HELARAZTEA. OSO ASMO POLITAK DAUDELA SENTITZEN DUT; BIDE ASKO DAUDE ETA SEKULAKO ERRONKAK DAUDELA SENTITZEN DUT. OSO ERRONKA KONPLEXUAK DAUDE, BAINA ERITMO BEREIZIETAN SINESTEN DUT JAZARPENAK ERALDATZEKO KONTZIENTZIAREN ASMOA JARTZEN DUGUNEAN.

Lorena Cabnal, Red Tz'at, Iximulew (Guatemala)





@calalafondo



@calalafondodemujeres



@CalalaFondodeMujeres



Calala Fondo de Mujeres



calala@calala.org

www.calala.org

calala
FONDO DE MUJERES